

Expediente 2026/291: Kanpezun enplegua sustatzeko dirulaguntzak. 2026.urtea/
Subvenciones para el fomento del empleo en Campezo. Año 2026

KANPEZUN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2026

Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udalerrian dauden pertsonak, enpresek edo haien sukurtsalek jaso ahal izango dituzte kontratazioagatiko pizgarriak, bia eta, egoitza soziala udalerritik kanpo izanda ere, 2026.urtean udalerriearen barruan noizean behin edo aldizka edozein jarduera edo lan egiten dutenek ere.

Bigarrena. Helburua

Kanpezuko udalerrian erroldatutako persona langabe eta ekintzaile autonomoen laneratzea eta gizarteratzea sustatzea da oinarri hauetan araututako laguntzen xedea , eta, horretarako, persona horien kontratazioa edo norberaren konturako ezarpena sustatzeko dirulaguntzen ezarpena arautuko da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2017ko irailaren 12an Osoko Bilkurak onartutako Ordenantza. (ALHAO 2. Zkia., 2018ko urtarrilaren 5koa)

Laugarrena. Zenbatekoa

1.- Honako hauek lagundko dira diruz, baldin eta enpresako plantilla osoa handitzen badute kontratazio berria egin aurreko 6 hilabeteetan zegoenaren aldean:

a) Iraupen mugagaeko kontratuak. Aldizkako finkoak ez dira sartzen: 1.500 euro.



b) Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 15.1. artikulua a) eta b) letretan ezarritako kontratuak, gutxienez 12 hilabeteko iraupena dutenek, salbu eta b) apartatu horretako kontratuak, sektoreko hitzarmen kolektiboak gutxienezko iraupena baimentzen ez duenean, hitzarmen horretan ezarritakoa izango da, eta, nolahi ere, gutxienez 6 hilabetekoa.

Plantilla osoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko bitarteko kontratua duten langileak.

Kontratu horiek gutxienez urtebeteko iraupena badute, 750 euroko dirulaguntza emango da.

Kontratuaren iraupena gutxienez sei hilabetekoa bada, dirulaguntza 350 eurokoa izango da.

Zenbatekoa horiek ehuneko 20 handituko dira, baldin eta inoiz enplegurik lortu ez duten 30 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (12 hilabete enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta) edo langabeziatik datozen 55 urtetik gorakoka kontratatzen badira.

Ehuneko horiek ezin dira elkarren artean metatu.

Ehuneko horiei ehuneko 20a gehituko eta metatuko zaie kontratatutako persona emakumea bada.

2.- Autonomoak badira, 1.500 euroko dirulaguntza emango da, eta aurreko paragrafoan jasotako ehunekoekin handituko da, baldin eta kolektibo horietakoren batean sartuta badaude.

3.- Lanaldi partzialeko kontratuak, lanaldi osoko langile batean lanaldiaren % 50eko gutxienezko iraupenarekin, aurreko pizgarriak benetako lan-denboraren proportzioan hainbatutako dira.

4.- Laguntza horiek gehienez ere 3 kontrataziotara mugatuko dira enpresa eta urte bakoitzeko, horien dedikazio-denbora edozein dela ere.



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

Dirulaguntza bat baino ez da emango persona bera kontratatzeagatik, eskaera enpresa batek baino gehiagok egin arren.

Autonomoen kasuan, eskaera bakoitzeko IFZ baten gehieneko dirulaguntza baino ez da emango.

5.- Arestian aipatutako kontratu-moten izendapenak dagokion urteko deialdia onartzen den unean indarrean dagoen lan-araudiaren mende egongo dira.

6- Eman beharreko eskabideek laguntzetara bideratutako guztizko zenbatekoa (2.000 €) gainditzen badute, zenbateko hori proportzionalki banatuko da onuradunen artean.

Bostgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, kontratazioa edo EJZn alta eman eta 3 hilabete igaro ondoren aurkeztuko dira, 6 hilabeteko epean.

2026ean egindako kontratuen kasuan, deialdi hau argitaratzen den unean aurreko paragrafoan ezarritako epeak amaituta badaude edo horretarako 15 egun natural baino gutxiago falta badira, epeak deialdia argitaratzen denetik hasiko dira zenbatzen, baina edozein kasutan, abenduaren 31 baino lehen.



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO